

- **Kultura:** Gaztañerrek inoiz baino ekitaldi gehiago bilduko ditu
- **Kirola:** Lehen mailako pilota partida azaroaren 12an

soraluzeko
hamabostekaria **230.** alea
2010eko urriaren 29ean

pil-pilean



EZOZIKO FUTBOL ZELAIA
Arearen ordezkilusia

Lehen mailako pelota partidak

Soraluze

Azaroaren 12an
gaueko 22:15ean

**1. partida: BBK promoziozko
lau t' erdiko txapelketa**

2. partida:

**Xala - Laskurain
Lasa - Zubieta**

Sarrerak: Urriaren 29tik azaroaren 11ra arte
Edurtza Kafetegia eta Arane Kiroldegian
20 Cta.
Egunean bertan takillan izango dira salgai

Arraizapenak



Etxabe Harategia



**Euskal
txabalkia
Bildotsa**

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 2375

TXURITXU

Zugkin
gozatzen

943 75 24 43

Santa Ana kalea 32 behean



MARI MAR HARATEGIA

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



ARMENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkartek
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

SEGURTASUNA



GILTZAK, S.L.

SARRAILAGINTZA



- Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **salmenta** eta **mantenua**
- Segurtasun eta lheserako **instalakuntzak**
- Sarrailen **egokipenak**
- Era guztietako giltzen **kopiak**
- Trabatutako atek **askatzen** ditugu

8.00etatik 24.00ak
larrialdiko zerbitzuak
943 70 13 91

Arrogueta 3
20600 EIBAR
GIPUZKOA
T. 943 70 13 91
F. 943 20 86 99
giltzak@giltzak.com
www.giltzak.com

**EGOITZ UNAMUNO****ARITZ ARIZAGA**

ONENA PASO EGITTIA? BAI ZERA!

Aupa Aritz, Zer barri? Ni hemen najabik “tio” titulua lepotik zintzilik dotela. Oindio ez nok hasi tiori dago-kixon lanekin baina egunero loibia inguruan ikusitta zer ikasi eta zer pentsatu emon jostak.

“Mundu guztiak diño...” edo “diñue...” esatiarekin hasten dittuk askotan gizurrik haundiñak. Egitik ezer gutxi dauken zabaldutako sinismen asko eta asko. Esaterako, “diñue umiak negar egittia normala dala eta batzuetan laga egin bihar jakuela hartu barik, ohitu daitetzen”. Neuk be hala uste najuan etxian arrebria ikusi doten arte. Oin ikasi juat umiak negar egitten dabenian zeoze-gaittik egitten dabela eta kaso egin bihar jakola. Logikua dok, ezta?

Baina tentaziñua beti hor dagok ume hori berez negartixa dala edo oker xamarra dala pentsatzeko. Kasu horretan, onena kasorik egin barik lagatzia ei dok, “ohittu” dadin edo “ikasi” deixen. Egixa esateko, guria harrapatzera datozen etorkinekin, ezertarako gauza ez diran aittitta amamekin, langabetu alperrekin, injustizia sufritzen diharduen gaiztuekin edo eguneroko beste hainbat eta hainbat egoeren aurrian, onena paso egittia dala esaten joskuek.

Ustez oso gizarte aurreratua dok guria, super aurreratua baina uste juat kontu batzuetan atzera egitten dihardugula. Gehixen bihar dabenan aurrian paso egitteko eskatzia seinale txarra ete dan.

Zer diñok hik Aritz? DYAn ze ikasiko dok honetaz?

“**diñue...**
esatiarekin
hasten dittuk
askotan gizurrik
haundiñak.”

Egoitz Unamuno

“**Umia egokixen**
zaindu leikienak
bere gurasuak
dira”

Aritz Arizaga

Aspaldiko Egoitz! Hasteko, ahaztu baino lehenago: Zorionak! Lan gogorra izango dozue oin umiak, baina poztasuna eta alaittasuna be pareko izango dozuez.

Gaur egungo prixazko mundu honetan hori dok errezena, Egoitz: “paso egittia”. Guriak egitterakuan, horrek dittuk lehenak, eta gero astirik baldin bajaok, bestiak. Baña geure egittekuak beti izaten omen dittuk asko, eta oso inportantiak. Inoiz gutxittan izaten juagu bestiei laguntzeko astirik. Hala eta be, ez juat ulertzen umien asuntua. Egungo psikopedagoguen modia be izan leike, oin hau egitteko esaten juek eta gero bestia, justo kontrakua eta jendia nahastatzen amaitzen juek. Nik uste, umia egokixen zaindu leikienak bere gurasuak dirala, gainera aitton-amona eta familiartekuen laguntzia euki ezker, primeran.

Sarrittan ikusi leike bai bizitza errealian, baita komunikabidietan be, jendia “paso egitten”. Aurrekuan egunkarixan Gipuzkoako Odol Emailien inguruko artikulo bat zetorren, Gipuzkoa mailan emailiak falta zirala esanez. Odolik emon ezin daben jendia egongo dok, osasun arazuak edo dana dalakua medio, baina hontan be “paso egitten” daben jende ugari daguala pentsatzen juat.

Hola goiazik, gurian zentrauta eta beste danana “paso egitten”. Eta egunen bation, norberak zeozet bihar dabenian, orduantxe konturatuko gaittuk, zer dan benetan bestiok guri

“paso egittia”. Orduantxe bakarrik konturatuko gaittuk.

Gero ez juat aukerarik izango, hortaz, ondo pasau Gazteñerretan!

Hurrengora arte Egoitz!

Goguan hartzeko

“Lagundu ezin dizunari ez esan zeure beharra”.

Gotzon Garate. Euskal atsotitzak



GUTUNAK

Segi borrokan!!!

Estatu espainolak beste muntai polizial bat burutu du. 21 gazteren bila joan eta 14 gazte atxilotu, inkomunikatu, torturatu eta 13 kartze-leratu egin ditu Marlaska epaile faxistak, Segiko militante izateagatik.

Argi daukagu atxiloketa arbitrario hauek Euskal Herriak bizi duen fase berria eteteko izan direla. Gazte hauek gazteriak pairatzen dituen arazoei aurre egin eta alternatibak eraikiz EH aske bat lortzeko borrokan dabilta eta ez, Rubalcabak komunikabideen laguntzaz gizarteari zabaldu dizkion faltsukeriak: “la cantera de ETA”, “academia terrorista”, “entramado criminal”... Gezurretan

oinarrituz 3 urtetan 160 gazte izan dira atxilotuak lan politikoa egiteagatik.

Demokraziaren izenean PSOEn gobernua gazteriarren aurka erabiltzen dituen tresnak estatu faxista batenak dira: polizia, inkomunikazioa, tortura eta epaileak. Eta guzti hau manipulatzeko beraien eskuetan dituzten komunikabideak erabiltzen ditu: prentsa, irrati eta telebista.

Injustizia hauekin amaitzeko EHren alde lanean segitzeko deia luzatzen diogu euskal jendarteari. Ainara ta besteak maite zaituztegu!

Soraluzeko SEGI

Zegaittik ez?

Urrian 6ko udalbatzarrian gertatutakuan hari-ra, alde batetik argi daukat PPko Mariak eta PSEko Patricia eta Solek zergaitxik bozkatu zebe ezetz azken astietan emon diran bahiketa polizial, tortura eta bortxaketa salatzen zituen mozina, eta zegaittik alde egin zebe lotsagabeki udalbatzara amaittu baino lehen. Beraiek diralako biolentzia guzti honen arduradun eta ez dakelako asmorik guzti honekin amaitzeko. Baina beste alde batetik, ez dotena ulertzen EAJko Maite, Oskar eta Ikerren jarrera da. Zegaittik EAJk, PP eta PSEkin batera ezetz bozkatu zebe Ezker Abertzalian mozioa aurrera ez etaratzeko? Zegaittik ez zan abstenitu Ezker Abertzaleak eta EAK euren mozioan egin bezela? Zegaittik mozio aternatibua? Ze puntukin ez zeren ados? Ze alderdi interes zeren atzetik? Zertara dator

Pil-Pileaneko gutuna? Zuen ezezko bozka ezkutatze? Eta zegaittik EAJk Espainiako Kongresuan baietz bozkatu zebe guardia zibila goraipatu eta txalotzen zebe adierazpena (2009-7-30)? Tamalez jarrera guzti hau lehenago be ikusi dou. 2009ko apirilian izan zan, Peio Etxeberrian bahiketan mozina aztertu zaneke udalbatzarrian, orduan gainera PP eta PSEko zinegotziekin batera alde egin zebe udalbatzarretik. Uste dot azken eraso eta testigantzen gogortasunak argi uzten debela bahiketa, inkomunikazio eta torturakin amaitzeko konpromiso zehatzak hartzeko garaia dala. Hasteko, urriak 30ian Donostian “Torturarik ez!” Manifa. Ni joango naiz, eta zuek?

**Iraultz Arluziaga
(Torturatu senidea)**

Zergaitik dago alde zaharra itxita?

Asteak dira, herriko alde zaharra itxita dagoela. Guretat, lanak amaitu ondoren itxita mantentzeak, ez du zentzurik. Udal Gobernuak jakinarazi zigun alde zaharra irekiko dela “peatonalizazioarekin” batera. Udalaren asmoa, alde zaharra 13:00etik hurrengo eguneko 7:00etara itxita mantentzea da. Gaur da eguna, oraindik ez dakigula udalak noiz hartuko duen erabaki hau. Bien bitartean, itxita jarraituko du. Gure taldearen aldetik jakinarazi nahi dugu alde gaudela alde

zaharra oinezkoentzat ipintzearekin, baina asteburuetan. Gehiegizkoa iruditzen zaigu aste barruan itxita mantentzea. Neurri honek ekarriko dituen arazoak gehiago izango dira onurak baino. Azkenik, bai Kalebarren eta Santa Ana, Zubi nagusia, Plaza Zaharra eta Etxaburuetako urbanizazio lanak egitea posible izan duen egitasmoa, IZARTU II plangintza izan da. Bere garaian Ezker Abertzaleak aurka bozkatu zuen, lan hauek ez zirela lehentasunezkoak argudiatuz. Orain ez dezatela plazaratu, beraienak diren bezala.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Pil-pilean Kultura Elkaratek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-Pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefona:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
UDALAK



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Ubane Madera

Erdigunea konpartituta

Ez zait batere gustatzen Poligonotik sartu beharra herriaren erdigunera etorri ahal izateko, ezta Poligonoko sarbidea bera, arriskutsua iruditzen zaidalako. Baina aurreko batean pozik ikusi nuen Plaza Zaharra bizi-bizi, hantxe zebiltzan-eta jolasean herriko ume mordoak, errepidea itxita zegoela aprobetxatuta. Umeendako Plazentzian dagoen leku eskasia ikusita, uste dut Udal Gobernuak asmatu egin duela erdigunea ixtearen erabakiarekin. Pentsatzen dut gurasoez gainera, beste herritar asko ere pozik egongo direla erdigunean trankil-trankil ibili ahal izatearekin, beti autoei begira ibili beharrean. Baina uste dut hori guztia egin daitekeela erdigunea zenbait ordutan itxita izan eta beste ordu batzuetan zabalik izanda, adibidez, 15:00ak arte zabalik eta 15:00etatik aurrera itxita. Nik uste dut horrek fabore egingo liekeela goizean erdigunera joan beharra daukan edozeini, kontuan hartuta herriko zerbitzu nagusiak (anbulategia, Udala, bake epaitegia, kooperatiba, fruta-denda...) erdigunean daudela. Eta uste dut horrek kalte handiegirik ez liekeela egingo erdigunea oinezkoendako gura dutenei. Izan ere, lekutan dago Poligonoa...

Roberto Retolaza, 34 urte perretxikoak bilatzen eta biltzen

Udazkenean eta zehazki urrian izaten da perretxikoak batzeko garairik aproposena. Ondo daki hori Roberto Retolazak. Aspal-ditik dihardu inguruko mendi eta basoetako harizti, pagadi eta gaztainondoen itzalpean ondokoak batzen. Toki zehatzik ez diogu atera. Horretarako atzetik segitu beharko diozue mendira doanen batean...

Perretxikotan ibili zara azken egunotan?

Urte osuan nabil ni mendixan aurrera eta atzera, zorte pixka batekin perretxikotan. Urria hilabete preziatuena da, hezetasun maila ona dalako eta hotz haundirik egitten ez dabelako. Urriko eguraldixak ondduak ernaltzen ditu. Errezagua da begixak zabal-zabalik eta sudurra erne erabiltzen bada basuan perretxikuekin tope egittia.

Zela doia aurtengo perretxiku batzia?

Primeran! Badakizu, gustoko tokixan aldaparik ez! Perretxikuak topatzeko, goizian argitziakin batera mendira urten eta gero orduak pasatu hara eta ona, aspertu arte!

Debabarrenian nun gozue-nak? Eta ugarixenak?

Egixa esateko Soraluze inguruan topatu dittut bai gozuenak eta baita ugarixenak be. Usadi-xuak diño perretxikutan egitteko lekua sekretuan mantendu bihar dala baina neretako hori baino garrantzitsuagua da konstantia izatia eta leku berrixake ezagutzia. Nere gogokuenak, Karakate, Sagarerreka eta Unzeta dira.

Zaletasunak gora egin dau. Basuan igartzen da?

Gaur egun perretxikuak beste jende ibiltzen da batzen. Ezjakintasunak bat baino gehixagori ospitaleko atiak zabaldu dotsaz, benenua janda. Modan dago perretxikutan egittia eta gero eta informaziño gehixago dago mikologixian inguruan. Oso ona da hori, beti be basua zaintzen bada eta biharrezkua baino gehixago jasotzen ez bada!

Soraluze inguruan zeintzuk dira benenua daukan perretxikuak?

Ezagutzen ez dan perretxikurik ez da batu bihar! Hemen inguruan? Amanita Muskaria (aluzinogenua da eta gorrixa, pinporta zurixekin) eta Amanita Faloidesa (hilgarrixa) dira gehixen topatzen diranak. Dana dala, perretxiku bakoitzak bere funtziñua betetzen dau ekosisteman...

Perretxikuak preparatzeko errezeta gozuenak...

Perretxikuak betiko modura jatia, zartaginian erregosi eta berakatzakin. Jateko gauza edarra da perretxikua! Bai horixe!



“Nere lekurik gogokuenak Karakate, Sagarerreka eta Unzeta dira.”

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Errebal kalea 2 behea

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

T. 943 75 16 46

Udalbiltza babesteko elkarretaratzea

Asteburuan 50 lagunetik gora bilduz iren Plaza Zaharrean Udalbiltzari babesa erakusteko. Udalbiltzaren aurkako epaiketa amaitu da eta orain epaiaren zai daude, guztira 21 auzipetu daude *Udalbiltza auzian*. Fiskalak

20rentzat hamarna urteko kartzela zigorra eskatu du (Xabier Alegia- rentzat ez du zigorririk eskatu). Dignidad y Justicia herri akusazioak 21 auzipetuentzako 14 eta 23 urte arteko espetxea eskatu du, defentsak, absoluzioa.



Domeka gabeen Gaztetxea miatzera sartu dira

Gaztetxeko kideek jakinarazi dutenez, domeka gabetik astelehen goizaldera bitartean, ezezagun batzuk Gaztetxeko beheko solairuko leiho baten kristala apurtu eta Gaztetxe barrura sartu dira. Asanbladako kideak zer lapurtu zuten ikustera jaitsi zirenean, ezer falta ez zela iku-

si zuten, bai ordea hiru armairu lehertu zituztela eta liburutegia eta sukaldea arakatu zutela. Horregatik lapurretara baino Gaztetxea arakatzera sartu direla uste dute gaztetxekoek. Guneaskeetan horrelako ekintzak guztiz salagarriak eta mesprezagarriak direla irizten diote asanbladakoek.

Omenaldia odol emaila soraluzetarrei

Urriaren 24an Gipuzkoako odol emaila hamalau soraluzetar omendu zituzten Elgetan: Xabier Alberdi, Jose Marcos Arizaga, Margarita Artolazabal, Francisco Ayora, Andres Elvira, Mari Kruz Garate, Jabier Goenaga, Maria Pilar Gomez, Anjel Gonzalez, Itziar Lizarralde, Elena Madrid, Inazio Zubizarreta, Pedro Elizburu eta Ander Epelde.



Iturria: Asier Elizburu

Soraluzeko AAMk banderolak salduko ditu

Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak herritarrei dei egiten die, euskal preso eta iheslariei elkartasuna adierazteko banderolak etxeetan zintzilikatzatzen. Banderolak urriaren 30ean eguerdiko 12:00etatik 14:00etara bitartean salduko dituzte, kontzejupean.

Bizikaleren zozketak plaza bete zuen

Urriaren 15ean egin zuten Bizikalekoek 60.000 errifan zozketa eta 250 euroko bi sari banatu zituzten. Lehen zenbakia 6632, Alberto Losadak zuen, Iñarra harategian erosketa egindakoan jaso. Bigarren zenbakia, 34275 Roberto Riverok jaso zuen Lilura estetika zentroan.



1970ean jaiotako bazkaria

Azaroaren 27an 1970eko kintoei bazkaria egingo dute Txurruka jatetxean. Antolatzaileek aurrean 40 urte bete dituztenak edo beteko dituztenak mahai inguruan bildu nahi dituzte eta horretarako, 60 euro ordaindu behar dira Kutxan azaroaren 16a baino lehen.

KZgunea azaroan arratsalde zabalik

Soraluzeko KZguneako arduraduna den Aitor Madridek jakinarazi du azaroan gune honek atak arratsalde zabalduko dituela, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Ohikoak diren ikastaroetan parte hartzeaz gain, interneten dohai-rik nabigatu daiteke bertan. Informazio gehiago 943 75 30 45 telefonoan.



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Misio taldeak Ruandaren aldeko postua jarriko du

Azaroaren 13an Gaztañerre Eguneke azokarekin bat egin eta Soraluzeko Misio taldeak ohikoa den postua jarriko du Kontzejupean. Aurten ere etxean egingako gozokiak salduko dituzte eta bildutako dirua Ruandako Mugina herrialdean eraikitzen diharduten haur hezkuntzako eskola batean komun berriak egiteko erabiliko dute. Misio taldeko kide batek azaldu duenez, aipatutako eraikuntza hau nagusientzat egoitza izan da orain gutxi arte. Komunen ordez lurrian egingako zuloak dituzte eta handiegia dira bertan ikasi behar duten haurrendako, hauetara jausteko arriskua handia delako. Soraluzeko Misio Taldeak konpromisoa hartu du aurten Muginako eskola honetan komun berriak eraikitzen laguntzeko eta modu horretan haurren eskolatzeari bultzatzeko.

Ikasle Eguna autobus Soraluzetik

Azaroaren 7an Amurrión egingo den Ikasle Eguna joateko autobusa antolatuta da Soraluzetik. Sarrerak Arrano tabernan daude salgai eta autobuserako izen ematea azaroaren 4a baino lehen egin behar da.

Etxaburueta kalea kotxeentzat zabalik

Udalak jakinarazi du autoendako zabalik dagoela Etxaburueta kalea. Zubi Nagusitik Erregetxera eta Estazio kalera igotzeko norabidean soilik izango da zabalik eta ez alderantziz.



Kultur taldeek lokalak egokitze eskaera egin diote Udalari

Herriko lokalen azpiegituren gainean hainbat eskaera jasotzen dituen proposamena aurkeztu zuten herriko kultur gileek kultura batzordean. Proposamena Kulturaren Mahaian eztabaidatu dute eta hainbat elkarte sinatu dute. Proposamen horretan Merkatu Plazan brigadarena den lokal herriko kultur taldeen beharrak asetzeko erabiltzea jasotzen da, “taldeek biltzeko eta euren tresneria gordetzeko espazio egokia izan dezaten”. Gaztetxokoa kiroldegi gainera lehen solairuan jartzea proposatzen dute, “squash gaineko lokala eta haren parean dagoen terraza horretarako erabiltzea”. Bestalde, Estaziño kalean egiten diharduten etxeetan udaletxearendako 180 m²ko lokal bat egokituko da eta horren zati bat arte eszenikoak lantzen dituzten taldeendako bideratzea eskatu dute.

Lokalen egokitzapena auzolanean

Proposamenaren sinatzaileek lokalak egokitzera orduan udalaren eta kultur taldeen artean elkarlanean jarduteko beharra adierazi dute “taldeon aldetik auzolanerako prestutasun osoa dago, ekipamendua nola egin pentsatzeko eta baita lokal horiei bizitasuna emateko”.

Herriko zinegotziek lokalen falta handia dagoela uste dute

Udal Gobernu Taldeak positiboa ikusten du gauzak horrela bideratzea, “beharra daukanak dituen gabeziak gobernuari helaraziz falta non dagoen ikusi”

dezaketelako. Ondo aztertu nahi dute proposamena, lokalen eskasia kultur arloan ez ezik hezkuntzan eta kirolean ere badagoela uste dutelako. EAJko Iker Aldazabalek dio jakinekoa dela herrian dagoen lokal gabezia. Kultur arloaren ardura ezker abertzalearena dela dio eta legealdia bukatzean dela kultur etxeari buruz ezere dutela aipatu. “Beraien hitzak gure eginez diogu: Hau ez al da “partxeo” bat?”. PSE-EEko Patricia Borinagak edozein proposamen baloratu beharrekoa dela azaldu du eta elkarte askok horren beharra duela ere badaki: “Egokiena litzateke ikustea ze talde dauden interesatuta, zelako beharrak eta helburuak dituzten eta baita herriari berari zer interesatzen zaion”. Lokalen erabilpena hobea ziurtatzeko egutegi baten bitartez elkarrekin antolatu ahal direla uste du. PP alderdiko zinegotziaren adierazpenik ezin izan ditu batu aldizkari honek.



Kultur gileek gaztetxokoa gune honetan eraikitzea proposatu dute.



Disenuea eta Formena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGO
K.Z. 20.000.434

Jon Azhorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13

Ezoziko Futbol Zelaia

Berritasunak ilusioa ekarri du

Belar artifiziala, argiztapena, aldagela berriak... Putzuz betetzen zen eta orkatilak zigortzen zituen areazko zelaiairen arrastorik ez dago jada. Zapatuan inauguratu zuten zelai berria. Inguruak herritarrez bete bete eginda, zelaia herriko jokalariz beteta, erakundeetako ordezkariak, dantzariak... Zapatukoak erakutsi zuen ez dela zelaia berritu den gauza bakarra, futboleko jokatzeko ilusioa ere berritu da. Zelaia estreinatuta dago eta urte askotarako izan dadila!



Erakundeetako ordezkariak zelaian



Futbol eskolako umeak



Herritarrek gradak bete zituzten



Sorako Jubenilak



Erregional B



Alkateak oroigarria jaso zuen



Sorak Juan Luis Larreari eskerrak eman zizkion



Sorako Kadeteak



Ibái-Rasconek ere oroigarria jaso zuen taldekideen eskutik



Erregional A taldea



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Aurreko zapatuan inauguratu zen Ezoziko Futbol zelai berria. Soraluze Futbol Taldeko jokalariei eta zale ugari batu zen bertan, horrenbeste denboran itxarondakoa euren begiekin ikusteko. Futbolarekin lotura duten lagunekin egon ginen zelai berriak ekarriko dituen onurak zeintzuk diren jakiteko.

Ze aldaketa ekarriko ditzu futbol zelai berriak?

BORJA OLAIZOLA
Sorako Erregionaleko jokalarixa



Oin jokatzeko modua aldatu egingo da. Lehen kastia eta indarra ziran garrantzitsuak, oin berriz tokeko futbola, kalitatezkua ikusiko da. Bazan berrizteko sasoia, Gipuzkoako azkenetako harezko zelaixa zan. Pozik gare.

MIREIA LAMARIANO
Jokalaria ohia



Berritzia biharrezkua zan, begitten ziran putzuak, lesinuak, aldagelak gaizki... Oin falta dana da nesken taldea berriro osatzia nahiz eta Erregionalerantz heldzia kostatuko dan. Oso pozik gare. Etxian asko gara futbolian gabizenak eta ilusina emoten dau.

JESUS JUAN BENITO
Sorako lehendakari ohia



Lehen jentia gogorik be ez zeukan jokatzeko. Ume berriak sartzeko be txarto zegan, potzuak zirala eta... Oin bost talde dare, futbol eskolia be sortu da, ia alebilen eta nesken taldea osatu leiken.

ALBERTO BERRAONDO
Sorako zuzendaritzako kidia



Instalaziño berriak badi-ttugu eta oin zuzendaritzan bihar da jentia. Gutxi gara eta laguntasuna bihar dogu. Espero dogu jentia animatzia etortzera eta gustora ibiltzia entrenatzen eta jokatzen. Baita afiziñua be!

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak
Errekalde 21
20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81



Belarrak
Loradenda
eta
belardenda
T. 943 75 30 11



Soraluzeko punk-rocka Danbakan

Urriaren 22an IV. Danbaka Musika Lehiaketa hasi zen Espaloia Kafe Antzokian (Elgetan). Desprezio talde soraluzetarrak parte hartu zuen lehen kontzertu honetan eta epaimahaiaren iritziz maila ona erakutsi zuen. "Punk-rock argi eta garbia egiten dute. Badi-rudi azkenean ere Danbakan sartu dela punka eta hori gustatzen zait" aipatu zuen Mikel Alvarezek, epaimahaiko kidea eta musikan aditua denak. Taldekideak ere pozik agertu dira "oso ondo pasatu dugu. Ikusiko dugu zer gertatzen den".



Iturria: Danbaka

Azaroko Kultur Agenda

URRIAK 29, barixakua

DJ FESTA GAZTETXIAN:

DJ Papi eta DJ Asi

Ant: Soraluzeko Gaztetxia

AZAROAK 5, barixakua

Antzerkia: Kanpaiak jo bitartean.

Ant: Soraluzeko Udala

AZAROAK 7, domeka

JAZZ KONTZERTUA:

The Heckler Quartet.

20:00etan Arrano tabernan.

Ant: Arrano taberna eta elkarte

AZAROAREN 12tik 21era

ERAKUSKETA:

Ralph Horton-en margolanak.

Inaugurazioa azaroak 12, Oreka

Art Aretoan.

Ant.: Oreka Art Aretoa

Azaroaren 13an Gaztañerre Azoka

Azaroaren 13rako gertu izango dituzte herriko baserritarrek beraien produktu eta animaliak, urteroko azokan erakutsi eta saltzeko. Goizeko 9:00etan txalapartaren hotsekin zabalduko da azoka. Goizean zehar umeentzat jolasak, kale animazioa, dantzak, bertsolariak... ez dira faltako eta eguerdiko 15:00etan herri babajana egingo da Plaza Zaharreko karpan. Gaztetxean babajana egingo dute eta arratsaldeko erromeria, Xero Xiette taldeak girotuko du. Gauean Emonek kontzertua eskainiko du Gaztetxean.

Aurreko astean erleak, txalaparta eta taloak

Azaroaren 6an, herriko baserritar gazteek bazkaria egingo dute San Andres Elkarte. 8an berri, erlezaintzari buruzko hitzaldia eskainiko du Gipuzkoako erlezain elkarte lehendakaria den Julian Urkiolak. Azaroaren 10ean txalapartak historian zehar izan duen eboluzioari buruzko

azalpenak jaso ahalko dira Plaza Zaharreko karpan eta txalaparta saioa ere bai. Azken urteotan egin den bezala, taloak egiten ikasteko tailerra izango da, azaroaren 11n arratsaldeko 19:00etan. AEKko talogileek Ibai Eder elkartearekin emango dute ikastaroa.

Bizikalek dastaketa antolatu du

Gaztañerre Eguna azaroaren 15ean izango da eta Bizikale Merkatarik Elkarteak Joserra Agiriaren gidatutako ardo eta gazta dastaketa antolatu du. Urtero moduan, egun horretan AEKko ikasleek, Berbalagunek, Galtzagorriek eta Pil-pilean Euskara Elkarteek lagun arteko afaria egingo dute Ibai Eder elkartearekin.

Baba-janerako tiketak:

Iratxo, Arrano eta Gaztelupen salgai.

Talo ikastaroan izena emateko:

943 75 13 04ra deitu, azaroaren 8a baino lehen.

Ardo eta gazta dastaketako sarrerak:

5 euro, herriko dendetan salgai.

Ama-aittittak Arraten

Nagusien egoitzako amama eta aittittak Arratera joan ziren urriaren 15ean. Goizeko 11:30ean abiatu ziren Arrate Irratia ikustera. Arrate irratia irekitzen zireneko egoitza ikusi ostean, Arrateko santutegira joan ziren, meza zuten eta ondoren nahi zuenak errezatzen. Kantabrian bazkaldu zuten gero eta tripa ondo beteta etorri ziren bueltan Soraluzera.



Iturria: Olaitz Lasa



Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatx, 5-8 Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Lehen mailako pelota partida Soraluzen

Laskurainen Lagunarteak, Soraluzeko Udalak eta Soraluzeko Pelota Taldeak lehen mailako pelota partida antolatu dute Gaztañerre bezperarako. Laskurain eta Xalak, Lasa eta Zubieta bikotearen kontra jardungo dute kiroldegiko frontoian. Aurretik baina, oraindik zehaztu gabe dagoen 2. mailako lauterdiko txapelketako pelotarien partida ikusteko aukera ere

izango da. Pelotarien arteko lehia gabeko 22:15etan hasiko da eta ETB 1 telebista kateak zuzenean eskainiko du.

Sarrerak salgai dagoeneko

Gaurtik azaroaren 11ra arte Edurtza kafetegian eta Arane Kiroldegian 20 eurotan.

Egunean bertan takilan izango dira salgai.



Iturria: Aspe

Joseba Garcia 15. Urrakira igoeran

Azpeitian jokatu zen joan zen domekan XXVIII. Urrakira Igoera. Joseba Garcia plaentxiarrak ere parte hartu zuen bere 5GTurboarekin. Hiru txanda jo-

katu eta gero, 00:03:49, 896 segunduko denbora egin zuen eta sailkapenean 15. postuan amaitu zuen. Aritz Egozkuek egin du denbora onena, 00:03:06, 070 segundurekin.

EMAITZAK

PELOTA

Mtz de Irujo – Laskurain	22
Titin III – Zubieta	19

FUTBOLA

Eibartarrak – Sora (Erreg.)	0-7
Gazteak – Sora (Erreg. B.)	1-0
Sora (Jub.) – Ilintxa	4-4
Sora (Kad.) – Urki	1-2
Aretxabaleta – Sora (Erreg.)	0-1
Sora (Erreg. B.) – Bergara B	1-8
Sora (Jub.) – Zestoa	1-1
Elgoibar – Sora (Kad.)	9-0

AGENDA

PELOTA

Gaur 17:30ean Elizondon

Mtz de Irujo – Laskurain
Titin III. – Zubieta

FUTBOLA

Zapateria 30, 16:30ean Ezozin

Sora (Erreg.) – Urki

Zapateria 30, 15:30ean Unben

Eibartarrak B – Sora (Erreg. B)

apateria 30, 11:30ean Arizkorretan

Idiazabal – Sora (Jub.)

Zapateria 30 11:00etan Ezozin

Sora (Kad.) – Eibartarrak

MENDIA

Bazkide Eguna domekan

Irteera goizeko 9:00etan izango da eta eguerdiko 14:30ean San Andres auzoan baba-jana. Nagusiek 20 euro, haurrek 10.

Hiru plaentxiar Tarragonako podiumean

Urriaren 16an Tarragonako Cornudella del Montsant herrian egiten den 30 km-ko mendiko ultra trail lasterketan parte hartu zuten Iñaki Ruiz, Pablo Galarraga eta Andoni Callesek. Hirurek podiuma egitea lortu zuten. Bizkorrena Iñaki izan zen, 2 ordu eta 33 minuturekin. Pablo eta Andoni batera iritsi ziren helmugara, 2 ordu eta 46 minutu eginaz. Moltes felicitats!



Iturria: Andoni Calles

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com

943 75 15 81

aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutzatila
20590 Soraluze

ZORION AGURRAK



Mirari Perez

Urrian 10ian 11 urte!!
Zorionak politta! Muxu haundi
bat etxekuen partez, bereziki
Aimarren partez!



Marko Akizu Garzia

6 urte bete dittuzu
urrian 26xan. Zorionak etxeko
danon partez eta patxo asko!!



Zorionak Ani!!!

Besarkada potolo-potolo bat
maitasunez beteta!
Amabitxi, tio, lehengusu eta
lehengusinen partetik!



Eukén Mendia Hernaez

Urrian 2xan bi urte!
Zorionak bitxo!
Muxu haundi bat aitatxo,
amatxo eta Nahian partez.



Zorion ak Joni!!

Mendizabaleko txiki handia
zalarako... eguzki ilargi hegoaize
mundu zahar eta euri,
denak keinuka ari dira
zu moduan, irri egiten duenari!
Muxu potolo haundiii asko
Pil-pileaneko lagun partez!



Fernando Gallardo

100 urte bete dittuzu
urrian 6an. Zorionak eta
ondo ondo segi deizula.



Zorionak Joxe Mari

Munduko arbitrorik onena
zaralako! Zorionak eta urte
askotan jarraitu.
Pil-pileaneko langileak.

jaiotakoak

XABIER TORIBIO RASCON



hildakoak

JOSE LUIS CLAVERO SAENZ



LEHTAKETA

- Zein ageri
da argazki
honetan?

Saria:

- Xala-Laskurain
Lasa-Zubieta
pelota partidarako
bi sarrera.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea:** Maialen Alberdi
- **Oier Larreategi,**
da pasa dan aleko argazkixan
agertzen zan Soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Begoña Perez de Labeaga



Iturria: Maite Narbaiza

1981EKO INAUGURAZIOA

Ezoziko futbol zelaixa 1981ko abenduan 8an inauguratu zan. Orduan Soraluzeko alkatia zan Jesus Mari Akizu eta, Karlos Garaikoetxea lehendakaria ageri dira bertan. Futbol zelaixa eraikitziak 30 milioi pezetako kostua euki zeban eta erronka haundixa izan zan herrixan holako zelaixa egittia. Inaugurazio egunian Soraluze eta Eibarren arteko partidua jokatu zan. Partidua eibartarrak irabazi zeben.

Ezkerreko argazkixan (ezkerretik eskumara):

Leire Makinai
Juan Mari Iraola "Txantxa"
Asis Treviño
Migel Anjel Oregi

Eskumako argazkixan (ezkerretik eskumara):

Alberto Osoro
Miguel Angel Oregi ✠
Jesus Mari Akizu
Carlos Garaikoetxea
Jose Urreisti
Ezezaguna



NESTOR ALBERDI EGAÑA

I. URTEURRENA
2009KO URRIAREN 20AN HIL ZEN
64 URTE ZITUELA.



Lehen urteurreneko meza zapa-
tuan, urriaren 30ean, 19:00etan,
Soraluzeko parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerririk asko
familiakoen izenean..



JESUS MARI JAUREGI GABILONDO

Zure lagunok ez zaitugu inoiz ahaztuko. Beti gure bihotzean.

Ernesto Oregi

IV. Danbaka Musika Lehiaketa



Punka, heavya, metala eta elektronika gau berean

Egubakoitzean hasi zen Elgetako Espaloian Danbaka musika lehiaketaren laugarren edizioa. Jarraitzaileak hasieratik taldeen aldamenean egon ziren; lehenengo ilaran dantzan.

DESPREZIO / Bergara-Arrasate-Soraluze

Adituak esana > Mikel Alvarez (Aby Kem taldekoa)

"Punk-rock argi eta garbia egiten dute. Badirudi azkenean ere Danbakan sartu dela punka eta hori gustatzen zait. Gitarra-jotzaileak solo asko egiten ditu eta kolore asko ematen die abestiei; hori punkean herritzailea da, beti ere gure iberrean ohikoa den punketik irten gabe".

Ikusleak esana > Imanol Soriano

"Despreziokoek punkaren garai onenetara eraman gaituzte. Uste dut lehiaketak ematen dituen 30 minutuak oso denbora aproposa dela euren dako. Nabaritzen da oso azkar eta jarraian jotzera ohituta daudela. Letrak, ohiko moduan, gizartearekin oso kritikoa. Gustatu zait".

Kazetariak esana > Arritxu Barruso

"Kontzertu dibertigarria izan da. Taula gainean disfrutatu egin dute eta hori jendearengana iristea lortu dute. 80ko hamarkadako Euskal Herriko punk gogorra ekarri digute Despreziokoek gaur Elgetako Espaloira".

Taldeakideak esana > 'Manzana'

"Oso gustura egon gara taula gainean. Bero gehiegi zegoen, baina oso ondo. Akats batzuk ere egin ditugu, baina suposatzen dut normala dela. Lagunak gurekin izan ditugu lehenengo ilaran dantzan eta hori ere garrantzitsua da. Garrantzitsuena da oso ondo pasatu dugula. Ikusiko dugu zer gertatzen den".

Gaztañerre Azoka²⁰¹⁰



Baserrria Bizirik!

Azoka Eguna, azaroak 13

09.00etan Baserritarren eta artisauen azoka irekiera txalaparta hotsekin.

10.00etan Haurrentzako eskulan bereziak kukumixorekin, Ludotekan.

15.00etan Herri babajana, Plaza zaharreko karpan (Txartelak, Iratxo, Arrano eta Gaztelupen salgai)

19.00etan Erromeria Xero Xieltte taldearekin, karpan.

Asteazken zehar

Azaroak 6, zapatua

Herriko baserritar gaztien bazkarixa San Andres elkartean, eguerdiko 14.00etan.

Azaroak 8, astelehena

Erlezaintzaren inguruko hitzaldixa, Gipuzkoako erlezain elkarteko lehendakaria den Julian Urkiolaren ahotik.

Zine aretoan, arratsaldeko 19.00etan.

Azaroak 10, eguaztena

Txalaparta historian zehar hitzaldi-tailerra, Mikel Ostolazarekin Plaza zaharreko karpan, arratsaldeko 18.30ean.

Azaroak 11, eguena

Talo ikastaroa, A&K-koen eskutik Ibai Eder elkartian, arratsaldeko 19.00etan.

(Izena emoleko deitu 943751304 edo idatzi koordinazioa@pilpilean.com-era azaroaren 8a baino lehen)

Azaroak 15, astelehena

Ardo eta Gazta dastaketa, Joserra Agirianoren gidaritzapean. (Sarrerak herriko dendetan salgai 5€tan) Plaza zaharreko karpan, iluntzeko 20.15ean.

Laguntzaileak:

